

KOSTUEN EGITURA

Aurretik burututako lanketa, dokumentu eta enpresa hornitzeko etapa guztien ondoren bigarren fasearen amaierara iristen ari gara, konkretuki azken pausuaren hasierara. Merkatuaren segmentazioa, balio proposamena, ideiatik egitasmora, irabazi iturriak, kanalak, bezeroekiko harremana, funtsezko baliabideak, funtsezko sozietateak eta funtsezko jarduerak atalak burutu ondoren, gure enpresako kostuei erreparatzeko garaia iritsi da.

Kostuei erreparatzean, argi eduki behar dugu edozein proiektu aurrera ateratzeak hainbat gastu egitea eskatzen duela, eta gure enpresa gastu horiei aurre egiteko gai izan behar dela. Hauek, hainbat motatakoak izan daitezke, kostu finkoak eta kostu aldakorak. Kontuan eduki behar dugu ekoiztutako kantitatearen arabera gure egoera asko alda daitezkeela, hau da, geroz eta gehiago ekoizten badugu gure kostu aldakorak murriztuko lirateke horrela eskala ekonomia lortuz (kostuak txikituz), horri esker gure egoera ekonomikoaren hedapena edo hazkundea lortuko genuke.

Kostu finkoak ekoiztutako kopuruaren arabera aldatzen ez direnak dira, hau da, gure lokalaren alokairua, adibidez, ez litzake aldatuko 100 metxero edo 1000 egiten baditugu. Batetik, langileen soldata kostu finko bat da, hilabetean diru kopuru bat ordaindu behar diegulako eta ez du zerikusirik izango produkzioak. Bestetik, gure lokalaren alokairua dago, hilabete bukaeran diru kopuru bat ordaindu behar dugu eta. Gainera, produktua sortzeko beharrezkoak diren diseinu makinak, gailu elektronikoak, interneta eta ordenagailuak ere kostu finkoen barruan sar ditzazkegu, hilabetean kopuru zehatz bat ordainduko dugu eta. Kostu finkoei amaiera emateko, "AENOR" enpresa kontratatu dugu gure metxeroak kalitatezkoak eta seguruak direla bermatzeko, beraz, hilabete bukaeran beste kostu finko bat edukiko dugu honi esker, kantitatea kontuan hartu gabe.

Kostu aldakorrei dagokionez, gure metxeroak egiteko lehengaiak guztiz aldakorrak dira. Besteak beste, "Banbu de Illas" enpresari erosten dizkiogun banbuen kostua eskatutako banbu kopuruaren arabera da. Bestetik, gure metxeroak egiteko hainbat makina beharrezkoak ditugu, baita argia ere, beraz, argindarra ere kostu aldakor bat izango da gure enpresan. Esan dezakegu SEUR enpresaren azpikontratazioa ere guretzat kostu aldakor bat dela, guk hilabeteen kontratu bat egiten dugulako eta produktuaren kopuruaren arabera ordaintzen diegulako.

Aurreko guztia kontuan hartuta, gure gastuen inguruko aurrekontu bat egin dugu:

AURREKONTUA			
DIRU SARRERAK		KOSTUAK	
Clipper enpresa	100.000€	Kostu finakoak	
Saldutako metxeroak: 20.000 metxero lehen hilabeteen	53.000€	Alokairua	1200€
Mailegua *	50.000€	Soldatak	1300€/langile
		Ordenagailuak	5000€
		Gailu elektronikoak	600€
		Diseinu makina	8000€
		Interneta	200€
		Mailegua	10.000€
		Kalitatezko testa	8.000€
		Kostu aldakorrak	
		Banbua	0.40€/unitateko →200
		Argindarra	6,1€/orduko
		Laserra	0.60€/unitateko
		Seur garraioa	3000€

guztira: 203.000€	guztira: 179.700€
-------------------	-------------------

Ondorioz, 23.300€ irabazten ateratzen gara. Etorkizunean orain irabazitakoa enpresan inbertitzea erabaki dugu ahalik eta metxero gehien ekoiztu ahal izateko. Horrela aurretik aipatu bezala eskala ekonomia lortuko genuke gure kostuak jaitsez. Egia da orain ez ditugula irabazi iturri handiak, baina etorkizunean altuagoak izango direnez eta gure helburu nagusia klima aldaketarekin bukatzea denez, erabaki dugu etorkizunean klima aldaketarekin zer ikusia duen ONG batean inbertitzea gure irabazien ehuneko bat.